

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Ekainak 1, 66. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




Zabalduz doa insumisioa



HOTZ - BERO

Kanpantorpea, 2 Tfnoa: 79 70 98 / 79 67 54
ARRASATE

TOSHIBA
BENETAKO KONFORTA



AIRE EGOKITUA

Adi ATBren ikusle!

22.

k a n a l e r a
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)

Azoka kalea 1,

20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza

Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Kamele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Urizarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA Taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eriztzen erantzunkizunik.



Arriskuaren balorea

Hegazkinera igoko naiz zenbait minutu barru eta besterik ezean lerro batzuk izkiriatzeari ekin diot, denbora pasa. Hegazkin batera lehen aldiz sartu nintzeneko sentsazio kilikagarri hura zeharo lurrundu delarik, beste berriago batek hartzen nau altzairuzko txori erraldoi horietako batera sartu behar naizenean. Gero eta ozenago deitzen nauen sentsazio hotz horrek ez du zerikusirik estraineiko hartaz; ikararen kideko ez ote den beldur nago, probabilitateen legea dela eta.

Baina lerroaldi honetara iritsi orduko, nire ardurari entzungorrena egin behar diodala gogoratu dut, osterantzean orain nagoen siloi eroso honetan jarraitu beharko bait nuke, betiko. Eta betiko diot, arriskuaren errealitatea nonahi aurki bai daiteke. Beraz, haizeetatik bidaizatzeari izan diezaikegun izuari, errepide edota beste edozein garraiobidetakoarena kontrajar genezaioke. Parra.

Egia da, gure gizarteak bere seguritatea zaindu behar duela, edozein prezioan. Nork bere bizitzaren luzapena du helburu nagusi eta horretarako arrisku guztiak ongi neurtuta eduki behar. Kontraesana dirudien arren, teknologiaro gero eta kritika zorrotzagoak egiten zaizkio, nahiz eta une berean teknologiko sistemak gero eta konplikatukoak sortzen diren. Goi mailako teknologiaro balizko zalantza denen kontrako fidagarritasuna exijitzen zaio.

Gaurregun, hiltzeko edota fisikoki oinazea jasateko arriskua askoz

txikiagoa da, joan zen mendean baino. Hala ere, gero eta gehiago eskatzen ari gaitzaizkio gure bizimoduari -askotan gehiegi- arrisku sozialak nolabait gaindituta gera daitezten. Inolako dudarik gabe, arriskurik haundiena gure bizimoduak berak sortzen dizkugu. "Etsaia ikusi dugu... eta geu ginen" dio filosofoak eta ez dirudi oker dabilenik, eguneroko giza ohituretan ematen diren hondamendiak ikusita. Arriskuaren komunikazio bilakatu da arriskuaren arazorik nagusiena. Baina ez bakarrik teknologiaren erabilpenari dagokion komunikazioa; oro har, gertakizun konkretu eta zailen gaineko argibideak arriskuaren urripena adieraz lezake.

Gaixotasun berriak ezezagunak beren jatorrietan daitezke pairatzen ari garen erasorik bortitzena. Horiei zor zaien errespetua ez da, minutu gutxi barru hartuko dudana hegazkinak hazteratzen didanaren kideko. Ezagupide zientifikoak ezinbestekoak ditugu teknologiaren hutsuneak nolakoak daitezkeen jakiteko, eta hori horrela delarik, garapen zientifikoa gorpuztuko den gizartearen baloreak ongi mugatua izan behar dira, arriskuaren kontrolean porrot ez egiteko.

Edozein modutan ere, beti garatzen da fatalismoaren jarrera. "Zergatik erori da hegazkina? Erori behar zelako" Baina nik ez dut horretan sinesten...eta utzi behar zaituztet, bozgailuetatik nire hegalaldirako deia egiten ari dira eta.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

baldana

- Medikuntza orokorra
- Txertaketak
- Kirurgia
- Laborategia
- X izpiak
- Odontologia
- Ile apaindegia

URGENTZIA 76 27 97

Koldo Elizalde 28, Etxebehea.
Tfnoa: 76 27 97
BERGARA



Josteko

OHALAK

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90;
ARETXABAIETA

Euskara dela eta

Ez dut uste orain esatera noana berria denik, uste dut sarritan komentu izan den kontua dela. Hain zuzen ere, - eta Herri Urratsen egon eta gero esaten dut, nahiz eta antzerako edozein ekintzatan ikus daitekeen honelako egoera- jende asko mugitzen dela Euskararen aldeko edozein ekintzatar joateko, eta era guztietako jendea. Baina joaten direnetatik portzentaia haundi bat alperrik joaten da, euskerari mesede egin beharrean, kalte egiten bait dio. Eta horrela, norbereren buruari harrika eginez. Jende hau, alegia, euskeraz ondo jakin arren erderaz egiten duena, espabilatu beharra dago. Badirudi pentsatzea lan zaila dela, eta horrexegatik jasaten ditu horrelako triskantzak etxean bertan Euskarak.

Horrelako jendeak ez du balio ezertarako, kalte baino ez du egiten; Euskararen aldeko ekintza batera joan eta erdaraz han ere. Beraz, non egin nahi du euskaraz? Nork egitea? Norentzat? Garbi dago behintzat, jende horrek nekez sinisten duela euskararengan (horrelako jarrera edukitzeko).

Benetan lotsagarria jende honen jokaera! Ia berandu baino lehen susperitzen den jende hau, bestela, alperrik bait dihardugu batzuk euskara sendotu nahian, atzetik etxeko beste batzuk lan hori hutsean uzten duten bitartean.

Besterik gabe, esker mila.

Euskaltzale bat

Joxe Aranzabali

Zorionik beroenak lehenik zuk zuzentzen duzun Arrasate Press aldizkariak astero erakusten duen mailagatik eta gure herriko etxetara ere garaiz bidaltzeko erakutsitako gaitasunagatik.

Bada besterik. 65. zenbakian eta euskal egunkariari buruzko erreflexioa egiten duzun "Usteak uste" sailean, bi ideia nagusitan gauzak ez direla hain garbi gelditu iruditzen zaigu. Gure ikuspuntu hau ere aldizkarian agertzea eskertuko genizuke.

Alde batetik euskal egunkari proiektu bakarra dagoela, ez bi, "Egunkaria Sortzen" izenez euskal kultur munduko sail desberdinetako 74 pertsonak aurkeztu dutena. Proiektu zabala eta anitza da eta oraingoz, bakarra. Ez dago beste inolako proiekturik, politikoren baten zurrumurrua baizik.

Bigarren ausnarketa Administrazio Publikoari dirua eskatzeko beldurrari buruz. Pobreak beti beldur. Euskara gure herriak duen ondasun garrantzitsuena den neurrian eta gure hizkuntza normaltasunera heltzeko euskarazko mass-media beharrezkoa den heinean, inolako babesik gabe dagoen euskal irakurleen komunitateak berdintasuna eskatzeko eskubidea du; ez pribilegiarik, juztizia baizik.

Besterik gabe, aurten guztiok euskal egunkari duin eta dotorea ikusiko dugun itxaropenez eta Arrasate Presseki girotutako irakurleei esker zonalde hau euskal egunkariaren surpertzaila eta babesle izango delakoan, zorionak lan talde osoari eta beti arte.

*Aretxabaletako Egunkaria
Sortzen Batzordea*

Besaidek beldurrik ez

ASAKo maskeluei beldurrik ez diezuegula argi ete garbi gera dadin, B.M.E.ko oilarrok, botatako desafioa onartzen dugu.

Bi gauza argitu nahi ditugu:

1- Partidua Setan izango da, 4.30etan izan beharrean, gure izar disdiratsuen ordu horretan iristen bait da.

2- Jaso behar dituzuen golak betirako gogoan eduki ditzazuen, dituzuen tripode, makina, zoom eta tramankulu guztiak eraman itzazue.

Bihotzez agur. Muxu asko

P.D.: Badakigu aste bateko atzerapen hau zuen erri-entemendu faltagatik izan dela eta ordutik jo eta ke ibili zaretela fubolean, baina lasai, ez dago beldurrik.


Besaide Mendizale Elkarte

Beharrezko al da garabi-zerbitzua?




Elisabet Amozarrain
(etxeakoandrea)

Bai, ondo ibiliz gero behintzat, beharrezkoa da; Arrasaten aparkaleku arazo handia dago eta.



Angel Coronado
(langilea)

Apurren bat izorratuko gaitu, baina zenbait lekutan beharrezkoa da.



Jesus Mari Zabala
(administraria)

Beharrezkoak aparkalekuak dira. Baliteke txarto aparkatuta dauden autoak jasotzeko garabia behar izatea, baina beharrezkoak aparkalekuak dira.



Maria Luisa Ulazia
(etxeakoandrea)

Batzuetan bai, autoak aurrean eta atzean jartzen dizkizute eta ezin izaten da norberarena atera eta. Edozein modutan, oso aparkaleku gutxi dago, ez da aparkatzeko tokirik ere egoten.

LENIZ

AUTO ESKOLA



BADAUKAGU AUTOBUSA!!!

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebisa, Adeslas (Muface) eta partikularrak

Kontsulta arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14. ARRASATE

KOPIOTXOA


Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak

Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

1 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Un toque de infidelidad". 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "¡Ay Carmela!". 10.30etan.
- Zine dokumentala: "Por la Lituania Sovietica", "Secretos de Jerusalem" eta "Moscu". Amaia antzokian, arratsaldeko 7.30etan.
- Bergarako jaiak:
- Bittorianatxo-ren jaitsiera. Arratsaldeko 8etan.
- Euskal abestien jaialdia: Lapurdi, Baxenafarroa, Zuberoa, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako abeslariak hartuko dute parte.
- Goardiako farmazia: Ruiz Torres. Ferrerías.

2 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Always". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "¡Ay Carmela!". 10.30etan.
- Kontzertoa: Eskifaia abesbatzaren emanaldia. Juan Batailatzailea Parrokian, arratsaldeko 8.45etan.
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

3 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Always". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "¡Ay Carmela!". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Antzerkia: "Pares y Nines" antzeziana ikusteko aukera Gerardo Malla, Jose Sancho eta Blanca Rodriguez-en eskutik. Amaia antzokian, arratsaldeko 8.30etan.

- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

4 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Always". 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "La caja de musica". 7.30 eta 10.30etan.
- Zaharren astea: Ikastolako abesbatza eta txistulariak. Arratsaldeko 6etan, Iturbide egoitza.
- Goardiako farmazia: Inzar. Erguin.

5 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Always". 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "La caja de música". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Zaharren astea: Txatxipel taldea, arratsaldeko 6etan, Iturbide egoitza.
- Goardiako farmazia: Amezua. Sta. Marina.

6 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz. Madalena.

7 OSTEGUNA

- Zaharren astea: Josemari Astigarragaren hitzaldia, Iturbide egoitza, goizez.
- Arrasate Musikalen kontzertoa. Iturbide egoitza, arratsaldeko 6etan.
- Zine-klub: "El vuelo del Condor" pelikula. Amaia antzokian, arratsaldeko 8.30etan.
- Goardiako farmazia: Morales. San Andres.

ERAKUSKETAK

- Ertamerikari buruzko erakusketa. Arrasateko Komite Internazionalistak antolatuta, Ekainaren 4etik 10era bitartean. Monterron erakusketa areloan.

AUTOBUSAK

- "Euskaraz bizitzea debekatzen digute" lemapean larunbatean, Donostian izango den manifestaziora joateko autobusak, AED elkarteak antolatuta. Irteera, 4.15etan, Garbaiko geltokitik.
- Araba Euskaraz-era joateko. Ekainak 10, Abetxukon (Gasteiz). Informazioa eta izen emateak, AED elkarteak. Tfnoa: 79 54 46

IKASTAROAK

- Deba Garaiko Udal Elkarteak antolatuta, **Astiaaldi eta Errekurtsoen Dinamizatzaile ikastaroa** Bergaran. Ikastaroa Bergarako Errotalde kultur etxean emango da eta Donostiako Euskal Begirale Eskolako eta Eskoriatzako Irakasle Eskolako irakasleen esku egongo da. Hirurehun orduko iraupena. Izen emateak, Arrasateko eta Bergarako Udalebteetan.
- **Botanika ikastaroa** Aretxabaletan. Ikastaroak hiru aste iraungo du eta Pedro Maria Urbebebarria irakasleak emango du. Izen ematea, 79 01 05 ifnoan.

Markiegik estiloZ bete du

50 urte

MARKIEGIN 50 URTEZ
GEROZTIK GAITUZU
GIZONEZKOAREN MODAN
ADITU.
JANTZIAREN HIZKUNTZA
GEUREA DUGU:
BISKOSAREN IRADOKIA,
AMUKO LASAIA, ZIMURREN
MISTERIOA, ESTANPATUAREN
ZIRIKA.
BENE BENETAKO NORTASUN
ETA ESTILOZ JAZTEKO MODA.
ZORIONTSU GARA MARKIEGIN,
50 URTE ESTILOZ BETE
DUGU ETA.



“ Une honetan bi estrategia desberdin eztabaidatzen ari dira Eusko Alkartasunaren barruan. Gipuzkoako buruzagi den Angel Larrañagaren eritziz, EAri ez zaio batere komeni EAJren kontra aritzea, kontra-kontrako estrategia horrek jendea gogaitzen bait du. Carlos Garaikoetxearen ustetan, aldiz, EAren estrategiarik onuragarrienetakoa EAJren kontra jartzea da eta bere politika zorrotz salatzea. Eztabaida honek badu dagoeneko bere islada Zumaian. Bertoko udal taldeak EAJrekin ahalik eta ondoen konpontzeko agindua jaso du Larrañagaren aldetik, baina zumaiarrek nahiago omen dute Garaikoetxearen estrategia jarraitu”

(Eguna astekarian)


“ Egunkaria Sortzen taldeak eta Jose Ramon Belokiren ardurapean Kultura Sailak burutzen diharduten bi egunkari-ereduen artean diseinu-diferentziak haundiak omen dira. Lehenak merkatuan dauden modelu komentzionaletako bat du gogotan eta besteak, aldiz, erabateko iraultza egin nahi luke. Torrealdairen inguruko taldeak ‘Jakín’ omen du gogotan; Beloki, ordea, ‘Arrasate Press’ekoekin aterabide bateratuak negoziatzeko gertu. Bi mundu. Eta ez ideologikoak, profesionalak baizik”.

(Eguna astekarian)

“ Atxabalpeko zelai ederra hirugarren mailako taldeak erabiltzen du soilik, hamabostean behin, azpiko mailatan dauden mutikoen areazkoan jokatzeko duten bitartean. Zentzu horretan, elitista ere bada Atxabalpe. Nere ustez aukera eman beharko genieke gazteei ere belarrezko zelaian jokatzeko, biharko egunean hantxe eman beharko bait dute euren topea, euren gailurra egin”

(Pello Bengoetxeak ATBn)

Zer dela eta, antolatu dituzue Lanbide-Moduluak?



Lanbide moduluak, hezkuntz erreforman urrats berria dira eta Logse delako legeak arautuko ditu. Esan beharra dago Europako Ekonomi Elkartean, dagoeneko izen bereko lanbide profesionalak aspaldidanik daudela eta guk izen bera jarri diegu, inoiz titulazioen trasbasea egotekotan, baliokidetasuna izan dezaten.

Lanbide-moduluak ikasleek lan mundura egokitze-prozesua samurtzeko prestatuta daude. Modulu hauen helburua, ikaslea lan-munduan sortzen diren beharrei eta teknologiaren bilakaerak sortutako eskakizunei erantzungo dieten alorretan trebatzea da. Modulu hauek, bereziki goi batxilergoa egin duten ikasleei zuzenduak dira.

Aipatu beharra dago, modulu hauek sortzeak eskolei esfortzu handia eskatu diela, irakaslego egokia bilatu behar izan dutelako eta horrez gain, enpresek in harremanetan jarri behar izan garelako.

Ikastetxe bakoitzak bere irakaslegoaren eta zentruaren orain arteko lanaren arabera aukeratu du eskainiko duen moduluak.

Lan merkatuaren ikerketa egin dugu eta Eusko Jaurlaritzak, aurrikusten dituen lanbide-moduluetatik, gure bailaran bideragarriak izan daitezkeenak aukeratu ditugu. Hau dela eta, programaren atal garrantzitsua, enpresa edo lantegietan egingo da, praktikatan.

Lanbide moduluen lehen eskaintza hau hurrengo urteetarako aukera zabalagoaren abiapuntua izango da.

Julian Serrano
Hezibideko Idazkari tekniko orokorra

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

► Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Zaharren Astea

Iturbidek antolatuta, ekainaren 4etik 10era bitartean

Datorren astean, Iturbide egoitzak antolatuta Zaharren Astea izango da. Astelehenean, Ikastolako abesbatzaren eta txistularien kontzertoa izango da. Asteartean Txatxipel taldea eta asteazkenean, herriko kristau gazteen taldearekin solasaldia izango dute. Ostegun goizean berriz, Jose Mari Astigarragak, herriko parrokoak, hitzaldia emango die eta arratsaldean oster, Zabala Anaiak trititilariek eta hiru dantzari bikotek Iturbideko giroa alaituko dute. Ostiral goizean, berriz ere, Jose Mari Astigarragaren hitzaldia izango da eta arratsaldean, Arrasate Musikalen kontzertoz gozatzeko aukera ederra izango da. Larunba-



tean, Iturbideko egoiliarrek urteroko bidaia egingo dute, aurten Hondarribia aldera. Igandean, goizeko hamaitetan, Iturbideko kaperan, herriko gazteekin batera izango den mezak emango dio amaiera Zaharrei eskainiko zaien aste honi.

■ Dantzari Txiki eguna

Ekainaren 17an Arrasaten, Dantzari Txiki eguna izango da. Egun honetan haurren bat etxean jaso nahi dutenek Hire liburutegian edota AEDn eman beharko dute izena. Arrasatearrei egun honetan umeak har ditzatela eskatzen zaie.

■ Euskararen eguna Aretxabaletan

Ekainaren zortzian, Behinke elkarteak antolatuta, Euskararen Eguna izango da Aretxabaletan. Eguerdi trititilariek lagunduta herri-potoea egingo dute. Arratsaldeko sei terdietan, umeentzako jolasak eta ondoren, kuadrilen arteko jokuak egingo dira. Gauean berriz, herriko pilotalekuan trititilariek alaitutako herri-afaria izango da.



Argazki erakusketa Monterronen

Aste honetan Musakolako Herri-Eskolako 6. 7. eta 8. mailako B ereduko neska-mutikoen argazki erakusketa dago Monterronen.

Arrasateko Udaleko Euskara sailak, euskarak duen hutsunea nolabait betetzeko, eskolaz kanpoko ekintzak bultzatu ditu, keramika, makrame eta argazkigintza ikastaroak antolatuz.

Argazkigintza ikastaroa hiru hilabetez luzatu da eta 30 neska-mutikok hartu dute parte. Erakusketa honetan ikastaroan zehar neska-mutikoen egin dituzten lanak ikusteko aukera dugu.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



ETXE-AUNDI

Dastapen-menua
ekainaren 8rako

- Meloi-zuku hotza otarrainskekin
- Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoeekin
- Txahal-solmoa espinaka gainean Rossini saltsaz
- Errekako amorraina ziapasaionez eta piper muturtxodunen saltsa
- Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz.

2.900 pza BEZ bame

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI


Asentzio parkearen aurka

Angiozarko baserritarrak Elgetarren proiektuaren kontra

Elgetako Udalak Asentzion egin nahi duen parkearen kontra agertu dira inguruko baserritar gehienak. Parkea sortzean baserritar ugari lurrak desjabetuko zaizkio eta gehienak Angiozarkuak izanda, proiektuaren aurka azaldu dira. Arrazoi ugari dituzte baserritarrek proiektuaren aurka azaltzeko. Lehenik eta behin, parkea sortzean inguruko abelgintza esplotazioa desagertzea eta abelgintza esplotazio honi inolako alternatibarik ez eskaintzen salatzen dute baserritarrek. Abereak ezingo dute laku inguruan ura edan eta ondorioz beste norabatera alde egin beharko dute.

Bestalde, baserritar gehienak Elgetakoak ez direla kontuan izanda, proiektuaren inguruko informazio eza salatzen dute. Baserritarren eritziz, lurrak desjabetzeko erabili den bidea ilegala izan daiteke.

Parkea egitean, baserritarrek



ezin izango dituzte pistak ireki eta arbolen esplotazioa ere murriztu egingo da.

Azkenik emango zaien indemnitzazioa egokia ez dela adierazi dute, egin nahi dena eta kalteen arteko orekarik ez dagoelako.

■ Garabi-zerbitzua

Arrasateko Udala, garabi zerbitzua arautuko duen ordenantza egi-ten ari da. Garabiak eramandako autoa berreskuratzeko 5.000 pta.ko isuna ordaindu beharko da, motoa berreskuratzeko, oster, 1.500 pta.koa.

Diru-kopuru honekin garabi-zerbitzua baino ez da ordainduko, autoa edo motoa gaizki aparkatuta egotearren isuna berdin-berdin ordaindu beharko da eta.

Garabiak jasotako autoak, Gelma enpresaren parean egokitu den aparkalekuan utziko dira eta Er-tzaintzak zainduko ditu.

■ Datorren astean saihebidia zabalduko

Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri duenez, ekainaren 3tik 9ra bitartean irekiko da zirkulazioari Arrasateko saihebidia. Apirileko euriteek sortu zituzten lur-jausiak konpontzeko Altuna Uria enpresak gogor lan egin du azken asteetan. Arazoak konponduta, Eroski inguruan saihebidera sartzeko bidari azken ikutuak ematea baino ez da falta. Lan horiek bukatutakoan saihebidia ireki egingo da.

■ Bergarako Orfeoia berragertuko

Orfeoia krisi larria jasan ondoren, Kristina Larrañaga izango da zuzendari berria. Abeslari berriak ere erakarri nahi dituzte Orfeoira, abeslari zaharrenak erretiratzeko aukera izan dezaten. Ekainaren 12an bilera izango da Orfeoian abesteko interesa duten guztiak biltzeko eta entseiu egutegia egiteko.

■ Hirilur kontribuzioa

Foru Haziendaren erruz, 1989 urteko hirilur kontribuzioa batzean, zegokiena baino 1.900.000 pta. gehiago jaso zituzten udalera.

Erruaz ohartu agindua eman diote Arrasateko Udalarari diru kopuru horren erdia itzultzeko, hau da, milioi bat pta. buelta ditzala (gaintzeko 900.000 pta.k bildu gabe bait zeuden oraindik).

■ Hauteskunde Zentzuaren zerrenda berria


Ekainaren 1etik 15era bitartean, Udaletxeko fatxandan egongo dira ikusgai Zerrenda berriak. Erreklamazioak, astelehenetik ostiralera bitartean egin ahal izango dira. Aurrekoetan zerrendetan agertu arren, oraingoetan ere zerrendetan agertzen den baieztatzea gomendatzen zaio jendeari

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu
Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Goi mailako lanbide-heziketa

Zazpi espezialitate berri Hezibideren eskutik

Datorren urtean hasiko da Hezibide Elkarreak babestuko duen Goi mailako lanbide-heziketa. Goi mailako lanbide-heziketa abiarazteko, unibertsitate mailako zenbait ikasketek ez diotela gazteari lanerako aukerarik eskaintzen eta prestakuntza espezializatura eskatzen duten hainbat lanbide berri sortu direla izan du kontuan Hezibideak.

Goi mailako lanbide-heziketak, aktibitate profesionalean sortzen diren espezialisten beharrari erantzuten dio eta horrela goi mailako formakuntzari heltzear dauden ikasleentzat bide berria sortzen da.

Goi mailako lanbide-heziketa, Eteo, Eskola Politeknikoa, Almen, San Viator eta Aretxabaletako Lanbide-Heziketa Eskolan eskainiko da.

Prestakuntza mota berri honek,

egitarauaren zati bat ikastetxean bertan izatea eta bestea, praktikan, lantoki batean izatea ekarriko du berrikuntza gisa.

Almen eskolan, *Ekintza Sozio-kulturalak* ikastaroa espezialitatea eskainiko da. Ikastaro honen helburua kultura gestore-administratzaileen prestakuntza izango da.

Bizigirosasuna espezialitatea San Viator Ikastolan eskainiko da, higiene eta ingurugiroko profesionalak prestatzeko helburuarekin. Eteon berriz, gestio-programadore espezialitatea irakatsiko da.

Leniz Lanbide Ikastegian *Ekipo informatikoak* espezialitatea ikasteko aukera izango da eta Eskola Politeknikoan azkenik, *Fabrikazio Mekanikoa eta Sistema automatiko eta programagarriak* espezialitateak izango dira.

Usteak uste...

Egun ederra igaro genuen larunbatean Donibane Lohitzunera joan ginenok. Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketaren azkena jokatzen zen.

Alaitasuna eta giro jatorra, urduritasun tantan batzuez txipristinduta. Saioa luzea egin zen. Pentsa, hogeitasei talde! Hala ere, giro polita zegoen eta emaitza ez dut esango ezin hobea izan zela, talde bat sari barik gelditu bait zen, baina ona bai, beste biek txapelak irabazi zituzten eta.

Itzulera denok geunden nekatuago, baina triste zetozenak ere ahalegindu ziren umore bidez giroa alaitzen.

Árrasateratu ginenean etorri zen harridura. Garibai kaleko ibilbidea harriz beteta, pilotaren bat edo beste eta giro arraroa. Fregauaren erdian heldu bide ginen, zeren manifestariak berehala ekin zioten barrikadak berregiteari, nolabaiteko normaltasunaren barruan.

Bapatean kristal hotsak. Gura-soek beste autobusetan iritsitako umeen bila lasterka eta artega eta manifestariak Bilbao Vizcaya Bankuaren bulegoetako kristalak apurtzen su eta gar. "Ez dago eskubiderik" entzun nuen nire atzean. Autobus geltokian zegoen begirada tristeko gizona zen. Bestekaldean telefono kabinaren kristalak birrinduta. Donibane Lohitzuneko argi-urtetara zirudien, beste galaxia batean. Beirut, Belfast eta Gaza hurbilago genituen

Joxe Aranzabal

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

**E D E L
TAPIZTEGIA**

**Gortina
Alfonbra
Koltza**

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



C. Arrasatek egingo Udalako eskola

Proiektuak, Foru Aldundiaren laguntza izango du

Arrasateko Udalaren azken go-bemu batzordeak, beste gai batzuren artean, Udalako Ingurugiro Eskolaren lanak Construciones Arrasate enpresari adjudikatzea erabaki zuen. Ingurugiro Eskolan egingo diren obrek, 39 milioitako kostoa izango dute. Proiektuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izango du. Horretarako 27 milioi emango ditu. Gainontzeko 11 milioiak Arrasateko Udalak jarriko ditu.

Lanak ekainean hasi eta irailera-ko bukatuta egotea espero da. Udalako Ingurugiro Eskola,

Arrasateko Udalaren aspaldiko asmoa da. Zazpi pertsona aritu dira bi urtez, proiektua aurrera eramaten eta dagoeneko prest dituzte eskolan egingo diren ekintzak.

Ingurugiro eskolara joateko aukera, Arrasateko ikastetxeetako 6. mailako haurrek izango dute. Bertan, egun bateko edo astebukaerako egonaldiak egingo dituzte eta horretarako eskolan sukaldea eta logelak egokituko dira.

Umek ekologia eta ingurugiroa zer den ikasteko aukera izatea da Ingurugiro Eskolaren helburua.

Trena Arrasateetik pasatuko

Eusko Jaurkitzaren Garraio Sailak Arrasateko Udalari jakin arazi dio, tren sare berria seguraski Arrasateetik zehar igaroko dela. Y grekoa delakoaren lehen ikerketen arabera, Arrasate izango da sareak zeharkatuko duen herrietako bat.

Tren sarearen aurreproiektua Sener eta Ineco enpresek egingo dute. Enpresa hauetako teknikoak denbora gutxi barru, Arrasatera etorriko dira proiektua garatzeko behar duten datuen bila.

Bideo piratak harrapatu

Azken hilabeteetan Ertzaintzak Gipuzkoan 1.500 bideo pirata harrapatu ditu Gipuzkoako Bideo-klub elkartuak (VAG) Elkarteak eskatuta. Arrasateko zenbait bideo klub, bideo pirata gehien harrapatu diren denden artean dago, hala nola, Llargi (125), Arrasate (44) eta Daglas (74). Eskoriatzako Eguzki bideo dendan berriz, 155 jaso zituzten.

JAIOTZAK

Martinez del Campo, *Daniel*. Maiatzaren 23an.
Fernandez Giner, *Axier*. 23an.
Arazuri Segundo, *Yanire*. 23an.
Lagullon Agreda, *Iker*. 25ean.
Legurdon Rodriguez, *Joseba Koldo*. 26an.
Nuriez Lopez, *Mirian*. 27an.
Diaz Milan, c. 28an.

EZKONTZAK

Germán Gonzalo Gomez & M. Esther Jurado Risco. Maiatzaren 26an. Elizaz.
Mikel Urrutia Zumelaga & Manuela Tena Sopo. 26an. Elizaz.

BAINUJANTZITAN
ESPEZIALISTAK

NEREA



BANATZAILE BAKARRA:

Majestic

**Tropic
Belcor**

Rasurel

Gottex

Erdiko kale 28, Tfnoa: 79 13 43 ARRASATE

SASKI-NASKI

lehiaketa


Asteroko sariak



KOLTAZ

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

IRRATI-
IRATZARGAILUA



OKIENDO
KIROLAK

ZAPATILAK



MELIA BIDAIAK

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT

Ikatz
argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA

Hileko sari handia



SAN JUANETAN
ASTEBETEKO
EGONALDIA
MALLORCAN
(24etik 1era)

ASTE HONETAKO
SARITUAK

JONAS ISAZELAIA
Irrati-iratzargailua

DANEL H. MAIZTEGI
Bi lagunentzako afaria

JON UGARTETXEA
Kirol zapatilak

IBAN DEOGRACIAS
Argazki makina

Galdera:

Zenbatgarren kanaletan emititzen du ATBk?

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: Adina: Tlfnoa:

Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketa



▲ Jon Ancin S.Viatorreko *Ortzadar* taldeaz arduratu zen finalaren egunean, **Goio Eskisabelek** beste konpromezua zeukalako. **Maria Pilar Fernandez** musakolarrak S.Viatorreko *Ipotxak* taldea zuzentzen du eta **Gurutze Uribarren** S.Frantzisko Xabier ikastolako *Torrotxio* taldearen musika arduraduna da.

Torrotxiok taldeen arteko lehen saria irabazi zuen, Nafarroako Otxigoi taldearekin batera. **Eñaut Larralde** (Etxamendi eta Larralde bikotekoak) eman zien garaikurra **Jone Goitia**, **Leire Gomez de Segura**, **Antxon Sagasta**, **Izaskun Aranbarri** eta **Nahia Pagoagari** ▶



▲ S.Viatorreko *Ipotxak* taldekoak pozez zorutzen zeuden Donibane Lohitzuneko pilotalekuan bildutako jendeak emandako sarietatik. Ez zen gutxiagorako, noski. Pa-ta-taaaa... esaten ere saiatu ziren.



IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORIATZA

Magisterio Eskola honek zera jakin arazi du:

**1990-91 IKASTURTERAKO
AURREINSKRIPZIO-EPEA ZABALIK DAGOELA**

Informazioa: Irakasle Eskola. Eskoriatza. Gipuzkoa

Tfnoa: 943 - 79 04 40

Ordutegia: 9-12 eta 15-18

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ

L ARRANGAN

auto gidarien eskola


KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



▲ Jaiotzez mondragoetarra, **Josune Barandiaran**, 25, hiru urterekin joan zen Gasteizera bere familiarekin. Magisteritza eta piano ikasi ondoren, Gasteizko Olabide ikastolan dihardu azken lau urteotan. Donibane Lohitzunen aipatu ikastolako *Txioerdi* taldearekin ari izan zen, txistua eta danbolinaz.



▲ S.Viatorreko *Ortzadar* taldeak saririk lortu ez zuen arren, lan duina eta polita egin zuen, eta horrelako eskuzartak irabazi zituen gero. Ez dute triste egoteko motiborik. Gora bihotzak eta datorren urtera arte.



▲ Denetara sei autobus joan ziren Arrasatetik. S. Frantzizko Xabier ikastolako goiz irten zen. S.Viator ikastolak bere aldetik bost autobus eraman zituen jendez gainezka. Sokoan gelditu ziren bazkaltzera. Irakasleek ez zuten oztoporik izan asfalto gainean bazkaltzeko. Entsalada, patata tortila, oilaskoa, pastela eta kafea. Ezin gozoagoa!

AHIZKE

AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana

ITZULPENAK

Bisitak, Hitzaldiak

Frantsesa

Katalogoak

Ingelesa

INTERPRETARIAK

Foileto teknikoak

Italianoa

Telex-a, eskutitzak
eta txostenak

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE

VE ECUADOR

Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak


Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Hara non agertu zitzaizkigun Arrasate press-en Donibane Garaziko AEK-ko irakasle eta ikasleak. Solasaldi ederrean eman genuen denbora, bixitaren ostean Astigarragako sagardotegi bateko bideari eutsi zioten arte. Ondo izan, eta ikusi arte!



Argazkian dituzue pasa den asteko *Saski Naski lehiaketaren* lau irabazleetatik hiru. Arantzabaleko irрати-iratzargailua **Beñat Madinarentzat** izan genuen; Okendo Kirolak-eko zapatilak **Ihintz Beristaintzat**; Ikatz-eko argazki makina **Itxaro Leibarentzat**; eta azkenik, argazkian agertzen ez den arren, Etxe Aundiko afaria **Klaudio Garrok** irabazi zuen. Zorionak guztiei!



◀ Amerikanoak ere badira gero izatekoak! Californiako ALCOR fundazioaren planari segituz, hiru milioi t'erdi pta.ren truke hildakoen buruak izoztu eta gordetzen dira; hamar milioiren ordain, ordea, gorputz guztia izoztu eta gordetzen da, medizina aurrera egiten duenean hildako horiek berpiztea posible izango den itxaropenaz. Nor dugu ALCOR fundazioaren lehendakaria? Ba argazkian ikusten duzuen Carlos Mondragon. Hau ere!

LASAGABASTER

Jantzidenda

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



◀ Goiz oso bat eman zuen Jose M. Setien Gipuzkoako gotzaiak Arrasateko parrokian, Gipuzkoako Diputazioak Arrasateko parrokia berrizteko prestatu duen proiektua aztertzen. Haren ondoan, Mikel Lasa eta Alberto Mendieta arkitektoak. Planoei begiratu ondoren, bi xehetasun txarto zeudela esan zien Setienek. Eta gotzaiak arrazoia, ez bait da alferrik arkitekto baten semea eta beste baten anaia.


izen propioak

■ Elena Lasa, 23, mondragoetarra, Arrasateko Udaleko Hezkuntz teknikari berria da. Elenak irakasle ikasketak egin zituen Bilbon eta zortzi hilabetez aritu da Udaleko Hezkuntz Batzordean lan egiten.

■ Jabier Ozaeta, 24, arrasatearra, Mondragoeko Udaleko Euskararen Hitzarmenaren Garapenerako teknikari berria da. Jabier irakasle ikasketak burutu zituen Eskoriatzako Irakasle Eskolan eta gaur egun FP2 ikasten ari da informatika adarrean. Arrasateko IMIn monitore gisa aritu da lanean azken urtean.

■ Iñaki Korta, 17, arrasatearra, Gasteizko X Aburtza eskuzko banakako pilota txapelketa irabazi zuen 18-5 emaitzarekin. Iñakik hamar urte darama pilotan jokatzen eta besteak beste orain dela bi urte Deba Garaiko pilota txapelketa irabazi zuen. Eskola Politeknikoan batxiler tekniko hiru garren kurtsoa ikasten dihardu.

Bai gozamina Andu Lertxundi idazlea Monterroneko hitzaldi aretoan neska-mutiko mondragoetarren galderei erantzuten ikustea. Galdera piloa eta oriotarrak lasai asko eta berebiziko graziaz erantzun. Besteak beste nola okurritu zitzaion Madame Kontxesi, bere nobeletako detektibe famatua sortzea. Ehun eta hamar kilo duen zaraustar gazte batekin zerikusit duen istorioa ▶



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE



Otalora 2, ARRASATE

Hedatuz doan erantzuna, insumisioa

Dagoeneko euskal alderdi politiko guztiak agertu dira alde

Jakina; Estatu Espainolean, hogeitun inguru dituen eta gizonezkoa den edozein gazte soldadutza egitera behartua ikusten da. Nahi eta nahiez.

Berdin zaie zer pentsatzen duzun; eta galdetuz gero, Euskal Herrian, adibidez, seguruenik argi geldituko litzateke gazte gehienak uko egiten diotela armadan hamabi hilabete alferrik galtzeari.

Militarrek osasun arazoak onartzen dituzte aitzakia bakartzat. Azken boladan, ordea, gazteek bide berria urratzeari ekin diote: Insumisioa; ez noa, ez dudalako joan nahi.



Ez soldadutzarik, ez zerbitzu sozialik; gazte gehienek ez dute joaterik nahi.

80 urteen hamarkada. Nahi eta nahiezko soldadutzaren aurrean, Estatu Espainolean hedatzen hasi zen kontzientzi eragozpenaren jarrera.

Hori ikusita, Gobernuak lege berezia prestatu zuen 1984ean. Legea ez zen indarrean sartu 1988ko martxora arte, eta ordurako, dagoeneko hogeitun milatik gora eragozle zeuden.

Arazoaren aurrean, amnistia antzekoa eman zuten gazte multzo horrenzat; baina lege berriaren arabera, une hartatik aurrera aurkeztutako kontzientzi eragozle guztiak Zerbitzu Sozialen bat bete beharko zuten derri gorrez, ordain bezala.

Orioko asanblada

1988ko abuztua. Hainbat gaztek batzarra egin zuten Katalunia, Madril eta Andaluzian.

Ipar zonaldeko batzarra Orion antolatu zuten. Kakitzat eta MOCen deiarri segituz, Bostehun lagunetik gora bildu ziren bertan, eta euren buruak insumisotzat jo zituzten: ez soldadutzarik, ez zerbitzu sozialik.

Azkenean, Estatu Espainol osoan 1989an guztira bostehun gazte era-

zagoen; aurrean, ostera, lau dira dagoeneko. Mundu guztiaren ahotan izan dugu Iñigo Irasuegiren atxiloteta, edo Eskola Politeknikoan atxilotu zuten Markos Perez bergararrarena.

Ostiralean beste gazte mondragoi-tar bati bukatu zitzaion bere burua koartelean aurkezteko epea, baina honen ere uko egin dio.

Militarren erantzuna

Militarrek hamar insumisotik bat atxilotzen dute eta Alcala-ko espetxera eraman. Errepresioa. Gaur, zazpi dira preso daudenak, tartean altsasuar bat eta Markos Perez bergararra.

Dena den, insumiso atxilotuek hilabete inguru egiten dute presondegian Gero, etxera itzuli eta Gerra Kontseiluaren zain gelditzen dira, hamabost egunetik behin Goardia Zibilaren aurrean aurkeztu behar direlarik.

Gerra kontseiluei dagokienez, bakarria egin da gaur arte, duela sei hilabete inguru. Morariega eta Hinojosa katalanak epaitu zituzten, eta hamahiru hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zieten. Halere, bi hauek kalean daude oraindik, zigorra bete ez duten arren.

Deia, geroz eta zabalagoa

Jaurlaritzak egindako inkesta baten arabera, Euskal Herriko gazteen %85etik gora soldadutzaren kontra

Informazio bila dabilenari, nahi beste emango diote Monterroneko objezio bulegoan

man zuten aurrera erabaki hori.

Araza berria militarrentzat. Zer egin jende horrekin? Ze argi dago, gainera, gazte insumisioak geroz eta gehiago direla. Arrasateren kasuan, adibidez, 1989an insumiso bakarria

azaltzen dira.

Datu horiek eskuan, dagoeneko euskal alderdi politiko guztiak azaldu dira insumisioaren alde: bai EA, bai EAJ, bai EE eta baita HB ere.

Hainbat Udalek ere soldadutzaren

kontrako jarrera erakutsi du, mozio ezberdinak onartuz; Gasteizko eta Arrasateko Udalak, adibidez.

Ez hori bakarrik. Makina bat talde, kolektibo, eta pertsonaia famatu agertu da autosalaketa zintzeko prest. Zertan datzan autosalaketa? Ba pertsona bat insumisioa egitera bultzatu dugula aitortzean, eta ondorioz, prest egotea pertsona horri ezartzen zaion zigor berdina jasotzera.

Besteak beste, autosalatuen zerranda luzean honako hauek aurkitzen ditugu: Emakumeen asanblada, EHUko irakasleak, Mikel Laboa, Txillardegi, Fernando Savater, Urko, Oskorri, Pasaiaiko trainerua, eta abar.

"Soldadutzaren aurrean, insumisioa!" zabalduz eta hedatuz doan oihartzuna da.



Manifestazio ugari egin ziren Iñigo Irasuegiren askatasuna eskatzeko

Iñigo eta Markos versus Jose M. Sineiro

Iñigo Irasuegi eta Markos Perez. Arrasatekoa bata, Bergarakoa bestea. Seguruenerik, bi gazte hauek ez dute inoiz Alcalá-ko espetxe militarra ahaztuko.

Zozketatu zituztenean, bietan ere A Coruñaara joatea tokatu zitzaizen; baina txanda heltzean, insumisoztat jo zituzten euren buruak.

Jose Manuel Sineiro dugu, ordea, A Coruñaeko epaile militarra. "Frankista hutsa", insumisio arrasatearraren esanetan. Sineirok, Iñigo eta Markosi koartelean agertzeko epea amaitu zitzaizenean, euren kontrako atxilotze-aginduak luzatu zituen.

Iñigo Irasuegi otsailaren 26an eraman zuten Goardia Zibilek Ulgorretik. Berrogei bat egun eman zituen preso; gero, aske utzi eta etxera bidali zuten.

Apirilaren 3an, ostera, Markos Perez-en bila etorri ziren Arrasateko Eskola Politeknikora, eta oraindik gaur Alcalako espetxean dago.

Kartzelak gaizkileentzat omen dira; galdetu, ordea, Iñigori. "Guk ez dugu inolako deliturik egin. Gure erru bakarra, soldadutzaren kontra egotea izan da. Ez gara

inorekin sartu, ez dugu inolako kaltetarik egin, baina halere espetxeratu egin gaituzte, eta han, barruan, txakurrak bezala tratatu".

Txakurrak bezala; horrexegatik ekin zion Iñigok gose grebari. "Burgoseko insumisio bat zegoen nirekin, Carmelo Sanz. Ikaragarri puzetu zuten. Pentsa, inkomunikatua zegoen, eta kantzontzilotan eduki zuten ez dakit zenbat egunetan zehar, arropa militarrik jantzi nahi ez zuelako. Nik ezin nuen hori jasan, eta gose grebari ekin nion protesta moduan".

Errepresioa, insumisioak nolabait beldurtu, atzera egin dezaten. "Ez ziguten uzten beste presoekin hitzegiaren ere. Baina begira, han gelditu dira euren zikinkeriarekin. Nik behintzat, pasatakoak pasata gero argi daukat ondo jokatu nuela, eta gainera, militarrik nolakoak diren ikusi ondoren are eta insumisioagoa naiz!".

Iñigok, halere, bai A Coruña eta bai Madrileko insumisioengandik jasotako laguntasuna, elkartasuna eskertu nahi du. "Oso ondo portatu ziren, bisitatzeratortziz, eta hain beharrezkoa nuen moralak eman ez".

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

“Ospitaleetakooi kasu berezia egiten digute”

Dolores Gordobil, “Doloritas”

M^{re} Dolores Gordobil beti inoren etxean bizi izan da. Gaur egun Iturbide Egoitzan bizi da, baina ia bizi osoa Ospitale izenaz ezagutzen zen erresidentzian eman du.

Dolores izenaz jende gutxik ezagutzen du, “Doloritas” izenaz bait da ezagun Arrasaten. “Ez dakit zergatik deitzen nauten Doloritas, beharbada txikia eta mehea naizelako, baina beste izen batez ez nau inork ezagutzen. Ezin galde zenezake Dolores-*ez*, ez du inork jakingo eta, nor den”. Iturbide egoitzako zuzendariak Nekane deitzen du, eta berari ez zaio axola, euskalduna da eta.

Doloritasek arrasatear askok baino bizitza gogorra goa izan du. Ferrerías kalean jaioa, hiru neba-arreba zituen, haietako bat bizkia. Hamar urte baino gutxiago zituenean, aldiz, etxea utzi eta ospitalean hartu zuten. “Ama umeak haztera Gasteizera joan zen eta ni Uribarriko baserri batera eraman ninduten. Gero denboraldi batez amonarekin bizi izan nintzen”. Doloritasek ez du garai hartaz hitzegitea atsegin, agian oso aro latza izan zelako. “Oso gogoan dut, anaia nagusiak eskolara sorbaldan eramaten ninduen garaia”.

Edozein modutan, oso gazte zela ospitalera eraman zuten bizitzera. “Beste hamazortzi neska-mutiko eta monjak bizi ginen ospitalean. Garai hartan, umezurtz asko zegoen inguruan eta denok ospitalean bizi ginen”.

Jaso zuten monjez Doloritasek maitasunez hitzegiten du, beharbada amaren lana bete zutelako. Beti jendez inguratuta bizi arren, bakar-dadea zer den jakiteko aukera izan du Doloritasek. “Jakina, monjek beren eginbeharrak dituzte, errezatu eta antzekoak, eta inoiz ez dute amaren hutsunea beteko”. Baina pozik bizi izan dela dio


“70 urtetik gora egin ditut bertan. Pozik bizi izan naizen seinale...”.

Nahiko osasun txarrekoa izan da Doloritas eta eskolan ere ezin izan zen denbora luzez ibili, gaiso jartzen bait zen. “Osasun txarrekoa izanda ere, begira, ia laurogei urte hartu ditut”

“Hazi nintzenean ospitaleko erosketak egiten nituen eta atezain lanak ere neuk egiten nituen”. Ez zen lan makala berea “Pentsa zenbat errekadu izan ditzakeen ospitale batek... eta denak nik egiten nituen, monjak klausurakoak ez baziren ere, ez zuten inoiz ospitaletik irteten eta”.

“Pozik biziko nintzen, 70 urtetik gora eman ditudanean bertan”

Ospitaleko lagunak haztean kalera irteten eta, hasi omen ziren, baina Doloritasek inoiz ez du hori atsegin izan. “Ni mezatarra baino ez nintzen irteten edo errekadutan, baina bestela ez nuen kalera irteten. Munduak ez nau inoiz erakarri. Danerako jendea dago, eta ni ez naiz kalera irteteko izan. San Juanetan ere, mezatarra eta



Dolores Gordobil, “Doloritas”

bazkaltzera lagun baten etxera joaten nintzen, baina beste ezer ez. Dantzari eta, ez naiz inoiz ibili”.

Gerra denborako garaiak gogoratzean triste jarri zaigu. Gose handia eta gaixotasuna besterik ez zegoela azaldu digu. “Arrasaten hil zituzten guztiak ezagutzen nituen, eta haien bekatu bakarra nazionalistak izatea izan zen. Euskaldunak ez gara hala?”.

Bizi osoa ospitalean eman arren, kanpoan ere ibili izan da. “Gaztetan urtero egiten genuen osteratxoren

bat eta monjek soineko-hartze egiten zutenean ere Zumarragara joaten nintzen”. Atzerrian ere izan da. “Lurdes-*era* gaixo moduan joan nintzen eta Erroman ere egon izan naiz”.

Familiartekoekin harreman estuak ditu, nahiz eta dagoeneko bere neba-arrebak hilda dauden. “Hilobek maiz idazten didate”. Familiarte-

koez gain, arrasatear askoren laguna da Doloritas. “Ez naiz izango ba? Bertakoa naiz gero!” dio jenioa erakutsiz. Berak azaldu digunez, ospitaleetako jendeari atentzio berezia eskaintzen zaio maiz. “Beharbada jendeak ez du ulertuko baina guri arreta berezia eskaintzen digute eta guk oso eskertzen dugu”.

Iturbideko bere gela garbitu ondoren, gosaldia eta mezatarra joaten da egunero. “Bestela oso gutxi irteten dut. Lehen bisita ugari egiten nituen, baina utzi egin ditut. Nahiago dut, nire gelan irakurtzen edota punto egiten denbora eman”. Egunkaria egunero irakurtzen du eta horrez gain, liburu espiritualak edota instruitzen dutenak atsegin ditu, baina ez nobelak.

Gutxi barru Iturbidetik alde egingo dute bera jaso eta zaindu zuten monjek. Berriak oso tristatzen badu ere, bakoitzak berea egin behar duela adierazten digu. Doloritas bere Iturbideko gelan, horrenbeste atsegin dituen panpinak lagun dituela, punto egiten utzi digu.

Dorletako Amak lan polita

Gipuzkoako Erlojuaren Kontrako Taldekako Txapelketan

Pasa den larunbatean, Gipuzkoako Erlojuaren Kontrako Taldekako Txapelketa antolatu zen Eskoriatzan, alde batetik alebin mailan, eta bestetik haur mailan.

Alebinei dagokienez, aipatu sei kilometro eta 400 metro bete behar zituztela. Hamar talde aurkeztu ziren irteeran, azkenean Loinaz taldea izan genuelarik irabazle, 10 minutu eta 35 segunduko denboraz. Bigarren postuan, 24 segundutara, Dorletako Ama (Arrasate Kirolak) taldea. Eurentzat, beraz, zilarrezko domina

Haur mailan ostera, 21 talde aurkeztu ziren 9 kilometro eta 600 metroak betetzeko prest. Honako honek Usurbil taldea izan genuen nagusi, 15 minutu eta 5 segunduko markaz. Bigarren postuan Zarautz taldea, eta hirugarrenean, Dorletako



Ama (Arrasate Kirolak), irabazleak baino 8 segundu gehiago eman zituztelarik soilik. Hor ikusten ditugu argazkian Luis Mari Berezibar entrenatzailearekin, brontzeko dominak lepotik zintzilik.

Pilotaren inguruan

Deba Arroa txapelketaren finalerdiak. Alebinetan, Rubia eta Etxebarria 5-18 nagusitu ziren Elgetan jokaturako partiduan; gazte mailan, ostera, Korta eta Markosek 9-22ko emaitza ederra eskuratu zuten Elgoibarren.

Horrenbestez, bi bikoteak ere Plaentxian izango ditugu, larunbatean, 4etan txapelketaren finalak jokatzeke asmotan.

Pilotan segituz, gogoratu igandean, goizeko 11etan hasita, Herrien Arteko txapelketaren bueltako partiduak jokatuko direla Iturripen. Aurrez aurre, mondragoetarrak eta donostiarrak. Duela hamabost egun, hiru mailatan ere egurra jaso zuten gure mutilek, baina oraindik ere aukera daukate taloari buelta emateko.

Igandean, gainera, Pilotaren Egunan egingo da Euskal Herrian. Hori dela eta, frontoi guztietan pilota partiduak: Iturripen, Zaldibarren, Kiroldegian...



IV Promesa Txapelketa


Txirrinduariekin segituz, datorren igandean, ekainak 3, jokatuko da IV Promesa Txapelketa. Proba bigarren urteko kadeteentzat antolatu da, Dorletako Ama Eskolaren ardurapean.

Goizeko 9.30etan emango zaio hasiera, txirrindulariek Arrasate eta Eskoriatza artean prestatutako zirkuitoari hiru itzuli eman beharko diotelarik; guztira 55 kilometro.

Gipuzkoa osotik etorritako 117 bat txirrindulari izango ditugu irteeran, tartean argazkian agertzen diren CHAPIME taldeko mutilak ere.

DENA KIROLA EGITEKO

Camping,
hondartza eta
aisialdetarako moda

LORAMENDI:  KIROLAK

p o d i u m a

Esther Abad, haurrari kirola nola irakatsi

Estherrek hogeitalau urte ditu, eta dagoeneko hiru daramatza Musakolako kiroldegian, ikastetxe ezberdinetako neska-mutikoen kirol monitore lanetan. *"Lau neska ari gara, egitaraua prestatu, eta ikastetxeetako haurrak datozenean ahalik eta kirol gehien irakasten"*.

Takarradaren mundua atsegin du. *"Nere kasa ibiltzen naiz, erreptide bazterretan. Hori bai, gustatzen zaidalako soilik, ez txapelketei begira. Dena den, lesio bat medio, azken boladan ezin izan dut deus egin"*.

Arrasaten, jende askok omen dauka kirolaren grifia barne-barnean sartuta; eta horri erantzuna emateko, Musakolako instalazioak txiki geratu dira. *"Eskerrak Iturripeko eraikuntzak aurrera egingo duela. Sarritan, hemengo kanixak ez dira nahiko, pertsona asko izuli behar izaten da etxera kirola egin gabe, pistak beteta daudelako"*.

Gustora dago Esther bere lanean. *"Haurrekin ibiltzea esperientzia bitxia, aberatsa da oso. Burukomin ugari, baina pozak ere bai. Nik behintzat benetan atsegin ditut"*.

Eta ezagutu ere ezagutzen ditu zertxobait. *"Oso dinamikoak dira, gelditu edukitzen badituzu, ezer egin gabe, segituan aspertu. Behin, modalitate ezberdinei buruzko klase teorikoak eman nahi izan genizkien, baina eurek kasurik ere ez"*.



Mugimendua behar dute, mar-txa. *"Azken urteotan, neska-mutiko guztiak saskibaloian murgilduta"*.

Berrikuntza ekar dezakeen edo-zer maite dute, beti kontu berrien bila. *"Baseball-a, edota Hockey-aren antzeko jolasa irakatsi genien, eta izugarritzko arrakasta lortu. Amerikanizatuak ere badaude gero!"*.

Era berean, lehiatzearen kontzientzia ere buruan itsatsia daramate. *"Saiatzen zara kirolaz gozatzen ikas dezaten, eta ezin. Beti onenak izan nahi dute, irabazi. Halaxe harrapatzen dituzte euren arteko 'pikeak' ere, nahi beste"*.

Agian horregatik, hor ikusiko dituzu neskak neskekin, eta mutilak mutilekin. *"Mutil bat sei neskez osatutako taldean jartzen baduzu, haserretu egiten da, galdu egingo duela susmatzen duelako. Eta alde-rantziz, neskek ere euren artean jokatu nahi dute, irabazteko aukera izateko behintzat"*.

Haurrak direla haurrak!

■ Arrasate Atletiko Taldea

Donostian jokaturako Gipuzkoako taldekako txapelketan laugarren postuan sailkatu zen Arrasate Atletiko Taldea, 103 puntu lortu eta gero. Eskuan izan zuten hirugarren postua, baina 4 X 100 errelebotako karreran lekukoaz huts egin, eta kale-ratu egin zuten laukotea.

Aipatu dezagun Jose Antonio Gay ondo baino hobeto ari izan zela 400 metrotan, 47 segundu eta 89hamarreneko marka berria lortuz. Horrenbestez, historian zehar 48 segundutik jaitsi den hirugarren gipuzkoarra dugu.

Jose Antonioz gain, Juan Carlos Martin eta Luis Fernandezek ere rekord berriak eskuratu zituzten. Juan Carlosek 110 metro-tako hesilasterketan, 16 segundu eta 93 hamarreneko denboraz. Luis-ek ostera, 3.000 metroetan, 9 minutu eta 43 segunduz.

Guztiei ere, zorionik beroena!

■ 24 ordu futbitoan

Musakolako kiroldegian, futbito-ko lehen Aukea Saria jokaturako da ekainaren 9 eta 10ean (24 ordu segidan). Ekipo bakoitzak, gehienez 10 jokalaririk izango ditu. Izena emateko epea ekainaren 6a arte egongo da zabalik kiroldegiko bulegoetan, jokalaririk bakoitzak bere NANaren fotokopia eraman beharko duelarik. Era berean, talde bakoitzak 2.450 pta. ordaindu beharko ditu.

Musakolako Gazte Taldea izan dugu antolatzaile, Aukea eta Gazte Zerbitzuaren laguntzaz.

Informazio gehiago, 79 04 27 telefonoan. Eta gogoratu, bildots eder-rra eta saria irabazle zain daudela.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

Rock-ero baten memoriak

“Oso deprimitu nintzen zazpi nota bakarrik zeudela konturatu nintzanean. Dozenaren bat tako izango nituen orduan eta asko flipatzen nintzen ordurako musikarekin. Egia esateko, garai hartan musika guztia gustatzen zitzaidan, kañeroa eta bestelakoa. Baina garbi neukan musika-rolloan nik ere zerbait egin behar nuela. Horregatik deprimitu nintzen zazpi nota bakarrik kontatu nituenean. Ze koño egin daiteke hain nota gutxirekin?”

Hamalau takorekin egin nuen lehen taldea, ikastolako kolega batzurekin. Nik arrebaren kitarra akustikoa jotzen nuen eta bateriak anaiaren tanborra, tope tio! Pare bat aldiz jo genuen baina oso kutreak ginen eta txapatu egin genuen.

Uda batean bendimiarra joan nintzen eta oso puteatuta ibili ondoren talero batzuk bildu eta kitarra eta anplia erosi nizekion jubilatzeke zegoen roc-

kero bati. Eta kitarra hark rock-ero bihurtu ninduen ni ere. Harekin jotako edozein gauzak rock-itxura hartzen zuen, tio! Orduan Clash eta Stiff-ekin flipatzen nintzen gehienbat, baina Dylanen disko zaharrekin ere aluzinatu egiten nintzen.

Eta beste talde bat egin nuen, kolega punk batzurekin. Ni bronka harekin konforme nengoan, uluak eta malaostia aurpegia eta hori, baina entsaioaren ondoren etxera joan eta igoal Mike Oldfielk jartzen nuen tokatan. Eta pentsatzen nuen, ba ni pijoa izango naiz, aibadios!

Gero derrepente rockero mogolloia azaldu zen eta gaztetxeak eta mobida guzti hori, eta gu bastante ibili ginen. Disko txiki bat ere grabatu genuen, oso rollo arraroa izan zen grabazioa, gu pardilloarena egiten eta estudiokoak pasando, gu bezalako asko zeudela irakurtzen genien begietan.

Talde hura ere pikutara joan zen, eta ni pasatzen hasi nintzen, kontzertuetara joan eta bai, baina jotzeko gogorik ez neukan. Lehen zazpi nota gutxi zirela pentsatu nuen bezala, orain erritmo, akorde eta zarata beti berdinak erabili beharrak ere deprimitu egiten ninduen, zientoka talde musika berdina egiteko, pasando!

Hertzainak-en “Aitormena” entzun nuenean flipatu nintzen berriro. Lehendik ere rock-ean bazeuden horrelako pasoteak, biolinak etab., baina hemen ea norke zeuzkan potroak hori egiteko!

Behintzat horiek atrebitu dira eta orain igoal posible izango da Dylan edo Laboarekin rocka egitea. Badaezpada nik kitarrari eta anpliarri hautsa kendu diet. Deskarao!”

Mikel Insausti

ARGAZKI-ERAKUSKETA MONTEIRONEN

Musakolako Ikastetxe publikoko ikasleek egindako argazkiak ikusgai

Noiz: maiatzaren 28tik ekainaren 3ra bitartean
Non: Monterron Kultur Etxean

Udaleko Euskara Batzordea

GOI MAILAKO LANBIDE-HEZIKETA

ZER ESKAINTZEN DU?

- Era ezberdineko adierazpenek goi mailako ikasketen norabide berrien beharra azaltzen dute.
 - Unibertsitate mailako zenbait ikasketek ez diote gazteari lanerako aukerarik eskaintzen. Honek sistemaren porrota adierazten du, halaber, gizarteak dituen zenbait behar beterik gabe daudelarik.
 - Prestakuntza espezializaturikoa eskatzen duten hainbat LANBIDE BERRI sortzea.
- GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAK, aktibitate profesionalean sortzen diren espezialisten beharrari erantzuten dio EUROPAN ZABALDUTA DAGOEN HEZIKETA SISTEMAREKIN HOMOLOGATUZ.
- HORRELA, GOI MAILAKO PRESTAKUNTZARI HELTZEAR DAUDEN IKASLEENTZAT BIDE BERRIA SORTZEN DA.

NORI ZUZENDUA?

- Goi Batxilergoa gaindituta duten ikasleei.
- Lan sail zehatz batean espezializatu nahi duten unibertsitate edo FP mailako tituludunei.

TITULAZIOA

Dagokion espezializazioan aritzeko, beharrezkoa den baliogarrtasuna du.

GURE ESKAINTZA

- HEZIBIDEko proiektuaren barruan ari diren Deba Garaiko ikastetxeek alternatiba berri honi helduz, ESKAINTZA BATERATUA aurkezten dizuegu, Lanbide-Heziketa berritu nahirik.
- Espezializazioen aukeraketa lan-merkatuaren ikerketa batean oinarritu da, geroko bideragarritasuna ahal den neurrian bermatzeko.
- Prestakuntza mota berri honek, berrikuntza gisa, zera proposatzen du; egitarauaren zati bat ikastetxean bertan izatea eta beste, praktikan, lantoki batean.

ESPEZIALIZAZIOAK

- Ekintza Sozio-Kulturalak ALMEN
- Ekipo Informatikoak LENIZ LANBIDE-IKASTEGIA
- Fabrikazio Mekanikoa ESKOLA POLITEKNIKOA
- Makinen mantenimendua eta
- Sistema Automatizatuak LANBIDE-HEZIKETA
- Gestio Programadorea E.T.E.O.
- Bizigiro-Osasuna SAN VIATOR
- Sistema Automatiko eta Programagarriak ESKOLA POLITEKNIKOA

ZENTROA

AURRE INSKRIPZIOA IREKITA DAGO ZENTROETAN

Informazio gehiagorako dei ezazue zentro bakoitzera.



Haurren etxeko lanak direla eta...

Etxeko lana, hau da, haurrek eskolatik etxera dakartzaten lanak, gurasoei ardura zaien gaia da: zenbait etxetan, eguneroko arazo bihurtzen den gaia, hain zuzen. Gaurko artikulua honetan, gure eskolak duen "ohitura" honetaz hausnartze-lana egiten saiatuko gara. Bururatzen zaizkigun lehendabiziko galderak ondoko hauek dira: Beharrezkoak ote dira etxeko lanak? Gure haurrek ez ote dute nahiko ordu ematen eskolan? Egia esan, galdera hauei erantzutea baino nahiago dugu "etxeko lan-mota deberdinak" aztertzea, eta berauen inguruan bideratu gure hausnarketa.

Hona hemen, gure aburuz, egon daitezkeen etxeko lan-mota desberdin batzuk:

1) Eskolatik etxera edota etxetik eskorala informazio bat eramatea eskatzen duen lana.

Adibidez: - eskolatik etxera: haurrak gurasoei jakin eraztea berak ikasi eta ulertu dien hori, horretarako beste egoe-

ra batera aplikatuz ikasi duena.

- etxetik eskolara: gurasoek dakizkiten atsotitz, abesti, etab.

Etxeko lan honek gurasoei arretatsu egotea eskatzen die, baina ez inongo prestakuntza berezirik izatea; honetaz gain, eskolako lana eta eskolaz kanpoko (hezkuntz ez-formala) lortzeko aitazakia ona izan daiteke.

2) Eskolan azaldutako kontzeptuen (ulertuen zein ez-ulertuen) aplikazio berria egitea.

Etxeko lan hau ezin izango du ikasleak burutu helduaren laguntzarik gabe (ama, aita, neba-arrebak,...). Beraz, etxeko lan honek gurasoei, arretatsu egoteaz gain, prestakuntza berezia eskatzen die, etxeko lanetan lagundu ahal izateko. Hau honela izanik, horretarako prestakuntzarik ez duten gurasoen haurra laguntzarik gabe geldituko da, behin eta berriro ikasleen arteko desberdintasunak azpimarratuko dituen faktore bat gehiago bihurtuz etxeko lana.

3) Irakur-zaletasuna bultzatzea:

Irakurketarako ohitura batzuk sortzen laguntzea eskatzen zaie gurasoei (liburuak erostea, haurrekin hitz egitea irakurri dutenari buruz, etxean toki eta giro aproposak sortzea irakurketarako,...). Baldintza hauek betetzea oso posible zaie guraso guztiei. Arreta honen ordainez, berriz, sekulako mesedea egingo diote beren sema-alabari.

Inola ere ez, elementu diskriminatzaile bihurtzen direnean, hau da, eskolan gaizki ulertutako zerbaiten inguruan sakontze-lan bihurtzen direnean. Azken kasu honetan, etxeko lanak, maiz, familiako arazo-gai bihurtzen dira.

Hemen esandako guztia orokorrean hartu eta ulertu beharra dago, bai bait dakigu, maila eta gela guztietan salbuespenak izango direla (atzeratuta dabilen haurrak,...), eta hauen etxeko-lanak, edo gainerako laguntzak kasuan-kasuan aztertu beharrekoak lirateke, noski.

Klarion taldea



SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLAK

1990-91 ikasturterako JANGELA ZERBITZUA eskaintzen du:

- **Ikasle, irakasle eta ikasleen familiei irekia: guraso, ikasle ohiak...**
- **Auzoetatik garraioa.**
- **Pertsonal egokia ikasleak atenditzeko.**
- **Sukaldari propioa.**
- **Janari orekatu eta zaindua.**

ETA GAINERA

- **Liburutegia: liburu, aldizkari, egunkari eta komikiz osatua.**
- **Hilean birritan bideo saioak.**
- **Ikasleentzako jolasak.**
- **Egutegi zabala: eskola egunetan, urtarrilean lehenengo astea, Bazko astea.**

LEKUA: JOKIN ZAITEGI Ikastola (Uribarri auzoa)

DENA 400 pezetatan

Alkohola (IV)

Azukrea edo glukosa, proteinak, Aikoipeak... gure gorputzak beti erabiltzen dituen elikagaiak dira, eta edozein organo edo ehunek erabil ditzake. Ez da ordea gauza bera gertatzen alkoholarekin, gure gorputzak ezin bait du erabili.

Jakin behar dugun lehen gauza hau da: ematen dituen kaloriak alde batera utzita, alkoholak ez duela gorputzak aprobeitza dezakeen ezertxo ere. Ez du karbono-hidrorik, ez bitaminarik, ez mineralik ezta koipeirik ere. Egia da kasu batzuetan elikagai-aztarnak aurkitzen direla edari hauetako zenbaitetan; garagardoak adibidez, baditu proteina batzuk, eta ardoak mineral batzuk ere bai. Gorputzak ez du eragozpenik alkoholikoak ez diren osagai hauekin, beste janarien elikagaiak bezala erabiltzen bait ditu. Alkohola, ordea, beste era bateko kontua da. Edaten den alko-



holaren proportzio txiki bat amaske-ta eta gemu edo pixaren bidez kanporatzen da, baina edaten den alkohola elimintatzeko gorputzak berez era bakarra du, hau da, erretzea. Gure gorputzeko ehun gehienek, adolak daramatzen koipe eta karbono-hidra-toak kontsumitzeko ahalmena dute, baina organo batek bakarrik ditu alkohola suntsitu edo erretzeko be-harrezko baliobideak: GIBELAK, hain zuzen. Alkohola odolera iristen

denean, bertan jarraitu behar izaten du gibelak eraldatu ahal izan arte. Izan ere, gibelak lan egiten du alko-hola eraldatu eta gorputzerako kalte-garri ez diren beste substantzia bat-zuk lortzeko.

Baina gibela giza-organo bat denez, neurri mugatuan egin dezake lan: gutxi gorabehera, 20-30 gramo alkohol eralda dezake orduko, eta bitartean, alkohola odolean ibiltzen da suntsitua izateko bere txandaren zain, eta itxaron behar duen denbo-raldian "bisitatzen" dituen organoe-tan kalte eginez ibiltzen da; eta ho-nek luzarora osasun-arazo larriak sor ditzake.

Litro bat ardo, hau da, alkohol hutsezko 120 gramo metabolizatze-ko agian 4-5 ordu pasatu beharko dira, bitartean gorputzeko organo guztiak ukituko dituelarik.

Eukeni/Arantxa

Construcciones ARRASATE S. L.
 (Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Eibar-Eibar III Mendiko bizikleten martxa

Domeka honetan aurreko baten legez, goizeko 9etan Eibarren martxa haundixe. Irteera Urkizuko parkean.

Hortik Txontara eta Altamirantz eta ondoren Araoz gaineraino (575m). Sekulako aldatza dagoela ematen du baina errestoa emateko modukoa.

Baserri batzuk igaro, Azurtza, S.Salvador eta aldapan behera Iparragireraino. Berriro be Eibar herri-tik pasa, Azitain, Apalategi eta Goenetxe baserri ondotik San Pedroraino (420 m).

Ikusten duzuen bezala, gorabehera asko duen ibilbidea. San Pedron atsendaldia hartu: hamarretako bikaina izangu dugu, bai horixe!

Hortik, orain be gorantz Arrate-raino, 540 m. Eta amaitzeko berriro Eibarreraino aldapan behera, lasai



lasai eta larregi nekatu barik.

Martxan hasi aurretik zenbaki

bat izango dugu eta martxa ostean opari- en zozketa egingo da: kamisetak, bizikleta, bizikletan ibiltzeko hainbat artikulu, etab.

Antolatzailea: "C.C. Eibarres"; laguntzaileak: Eibar Udala, DYA, Triplex eta Ciclos Luis de Rey.

Duela bi urte be Ermua, Aixola, Elgeta, Eibar, inguru maldatsu eta malkartsu eder hori ezauketako parada izan genuenok orain paraje berriak ezagutuko ditugu, zalantza barik.


Aholku bat ematekotan, "desarrollo" errazak erabili, ondo dosifikatu bukaeran nekaturik amaitu gura ez baduzu.

Zita erakargarria domeka horretan Eibarren, datorren ekainaren 16an Arrasateko martxan gogor egoteko.

VVT

PARES Y NINES

ANTZEZLANA



Arrasateko Udala



Ekainak 3
arratsaldeko 8.30etan

Amaia antzokian

Sarrera 500 pta.
Gazte-txartelarekin 300 pta.

Gipuzkoako Foru Aldundia





Arrasateko Udala

Eskaiola Dekoraziori Buruzko Ikastaroa

- **Edukia:**
 - Eskaiola-piezak egitea
 - Modelo eta moldeak egitea
 - Plazak eta moldurak jarri eta birpasatzea
- **Hartzedunak:** Luzaroan langabezian daudenei eta lehen enpleguaren bila dauden gazteei.
- **Zentroa:** M.C.M.ren Pabilioi Industrial. Nafarroa etorbidea.
- **Plazak:** 15
- **Izen ematea eta matrikula:** 90-VI-8 arte
- **Hasiera:** ekainaren 11n
- **Bukaera:** 1991 urtarrilaren 31n
- **Ordutegia:** 8etatik 13.30etara
- **Ikastaroaren iraupena:** 715 ordu.

Informazioa eta matrikula

Arrasateko Udala. Enplegu-Dinamizatzailea Tfnoa: 79 09 00 edota
Deba Garaiko Udalak. Enplegu-Dinamizatzailearen bidez.



Aste gazte

Zuetariko gehienek Gazteentzako Informazio Bulego berria (Garibai Etxean, hori badakizue) zabalik dagoela ez jakin arren, joan den astean (Maiatzak 21-25) 37 kontsulta izan ditugu.

Gehienak, honako gai hauetaz izan dira:

1.) Udako oporrak: udalekuak, lan-ihardunaldiak, bidaiak, informazio turistikoa, campingak, aterpetxeak, egonaldiak atzerrian eta txartelak.

2.) Ikastaroak

3.) Lehiaketak

4.) Kontzientzi-Eragozpena

5.) Lana

Oporrak

• Alojamentu merkeak: etxe partikularretan (3 aste, 5.500 pezetagatik), campingak, aterpetxeak, etab. Kontsulta itzazu gidaliburuak.

Kirolak

• Udako Kirol-Kanpaina, Kiroldegian: Igeriketa, Waterpolo, Aerobic, Eskalada, Judo, Gimnasia erritmikoa, Badminton, Yoga, Squash, Tenisa, Patinaje, Piraguismo, Wind-Surf eta Polibalente. Izen-emateak: Kiroldegian (79 04 27)

Lehiaketak

• "Arrasate-90" Literatur Lehiake-

ta, Deba Garaian bizi, lan egin edo ikasten duten heldu eta gazteentzat. Euskaraz. Modalitateak: ipuina, poesia eta bertso-paperak. Gai librea. Sariak: modalitate bakoitzeko sari nagusia: 50.000 pta eta 15.000 pezetakoak. Bi maila: helduentzat eta gazteentzat (18 urte arte). Lanak aurkezteko epea: azaroaren 1a baino lehen.

• "Arrasate-90" Komiki, Argazki eta Bideo Lehiaketak. Gaiak eta sariak: a) Komikia: "Arrasaten Gazteria" 40.000 pta eta 15.000 pezetako akzesitak. b) Argazkia: "Arrasateko bazter ezkutuak" 30.000 pezetako bi sari eta 15.000 pezetako akzesitak. c) Bideoa: librea, irudiek Deba Garaikoak izan behar dute. 75.000 pta. eta 25.000 pezetako akzesitak. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 1a baino lehen.

• Iokin Zaitegi IV Itzulpen laburren sariketa. Edozein pertsonak har dezake parte. Gaia: "Ekialdeko Europaren Aldaketa". Munduko edozein hizkuntzatatik (gaztelaniatik ezik) itzulitako idazlanak. Sariak: 250.000 eta 50.000 pezetako akzesitak. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 1a baino lehen.

• Portugaleteko Uri Urena VI Jendeurreko Margo Sariketa". Eguna:

uztailaren 22a (igandea). Edonork parte har dezake. Gaia: Hiriko Alde Zaharreko zerbait. Teknika eta neurri libreak. Sariak: 1.a 65.000, 2.a 30.000, 3.a 20.000 eta akzesitak.

• Irun Hiria Literatur Sariak. Euskaraz nahiz gaztelerez. Modalitateak: ipuina, olerkia eta saiakera. Gai librea. Sariak: a) Ipuina: Gaztelua eta 300.000 pta b) Olerkia: Gaztelua eta 500.000 pta c) Saiakera: Gaztelua eta 700.000 pta. (modalitate bakoitzeko bi sari: euskeraz, gaztelaniaz). Lanak aurkezteko epea: uztailaren 31ra arte.

• "Lazarillo" 1990 Sariak. Estatu Espainoleko edozein hizkuntzatan idatzitako haur edota gazteei bereziki zuzendutako liburuak. Bi sari: a) Idazleentzat: 500.000 pezetakoa. b) Ilustratzaileentzat: 500.000. Lanak aurkezteko epea: uztailaren 15a baino lehen.

Ikastaroak

• Arroil jaitsierak: Uztailak 7/8, 14/15. Lekua: Larrau-Lelagua, Hecho Arana. Mailak: hastapena. Mendi Federatu Txartela Atzerriko Suplementuarekin edukitzea ezinbestekoa da. Prezioa: 9.500 pta.

Informazioa gehiago: *Gazte Zerbützu*an 77 00 65 eta 79 09 00

DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

Sei hilabeterako Administrari Laguntzaile bat kontratatu behar da.

• Betebeharrak

Titulazioa: "Graduako escolar" delakoa, lehenengo mailako Lanbide - HJeziketa edo balio berekoa.

• *Interesatuak*, beren instantziak eta "curriculum"ak ekainaren 8ko hirurak baino lehen, Arrasate Pasealekuko, 5ean dagoen Udal Elkartearen Erregistro Orokorrean auzeratu beharko dituzte.

Kontratazio oinarriak ere bertan egongo dira.

Arrasaten, 1990eko maiatzaren 24ean.
Lehendakaria

ETXEBIZITZAK

- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Bikoteak errentan hartzeko teiltupeu edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabeen etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikia edo teiltupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teiltupea edo pisu txikiren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.
- Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.
- Alokatzeko pisua behar dut Arrasaten edo Aretxabaletan. Tfnoak: 79 13 95 eta 79 16 57 goizeko 9etatik arratsaldeko 2ak arte. Flor Tellez.
- Torreviejan bungalow-a alokatzen da ekain, uztaile eta irailean. Tfnoak: 79 15 74 eta 79 30 47

LANA

- Pertsona euskalduna behar da ikaste-txetan eta etxez-etxe bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Kontabilitateko klase partikularrak emateko pertsona behar da. Dei 9etatik aurrera 79 99 82 tfnora. Miren.
- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu betez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.
- 26 urteko neskek etxeko lanak egingo lituzke, orduka, bai goizez eta bai arratsaldez. Tfnoa: 77 04 97 Nati.
- Esperientzia duen neskek etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 97 58
- 19 urteko neska euskalduna prest etxeko lanak egin eta urmeak zaintzeko. Interesatuak dei tfno honetara: 79 54 79.
- Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 21 09. Gaez.
- Latin klaseak ematen ditut. Interesatuak 79 50 88 Tfnora deitu. Garbiñe.
- Neska euskalduna behar da Donostia-ko etxalde batean. Ez da bakarrik egongo. Soldata ona. Interna. Tfnoa: 40 00 86 bulego orduetan.
- Gazte taldek pinudiak garbituko lituzke edo antzekoak. Tfnoa: 79 97 84 Kazintxo
- Urmeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. M^a Jesus. Tfnoa: 79 99 17
- 2. REMeko (euskaraz) mutikoari matematika klaseak emateko pertsona behar da lehenbait lehen. Tfnoa: 79 33 45

SALEROSKETAK

- R-12 TS autoa salgai. Interesatuak 79 33 43 Tfnora deitu, arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Maleta, motxila eta poltsak, era guztietakoak salgai. Oso prezio onean. Nahi izanez gero, Aramaion San Martin Ikastetxean izango dira. Tfnoa: 945-44 50 04
- Bizikleta ia berria salgai. Reynolds 531 Mercier. Pieza gehienak Zeus. Talla: 58. 65.000 pta. Tfnoa: 76 32 69
- Amstrad CPC 6128 ordenadorea salgai. Disketa (3''), 128 k., Kolorezko monitora, joytick profesionala (telemach), programak (datu basea, testo prozesadore...), 40 joku eta manualarekin. Tfnoa: 76 25 12.
- Bizikleta salgai. 10-12 urtekoentzat aproposa. Merketxo. Tfnoa: 79 31 04
- Bi bizikleta ditut salgai. Bata paseozkoa bestea karreterakoa. Tfnoa: 79 39 88
- Bigarren eskuko argazki makina reflexa erosiko genizuke prezio onean baduzu. Jabier 79 80 86
- Opel Corsa GSI, SS- 2145-AF salgai. Tfnoa: 79,46 41 Felix

DENETARIK

- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin permuta egingo luke. Interesatuak dei dezatela tfno. honetara: 79 26 69
- Edozein motatako liburuak forratzen dira, liburutegikoak, hiztegiak, etab. Interesatuak deitu: 77 00 29 Josefa
- Bururatzen bazaizkik horrenbeste asmaketa / sudurrean hasiko zaik peka / Zorionak Eneka! JO TA FUEGO.

ARRASATEN HILDAKOAK

Eusebia Lazarraga Bidaurre
Maiatzaren 23an. 82 urte

Carmen Prol Rodriguez
Maiatzaren 27an. 71 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka 1,
20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65

Famauen ahotik

Ramon Bolinaga: "Aiuntamentuei beste martxa bat emun gutzan"



Eskola kontuek

Lau urtekin ero, merzedarixetan ibili nitzuan gero zazpi urtekin portillonien.

Ha sartzen zaniene, txapela ondo ipinitte bajaukan, gauzie garbi-garbi ondo faten zuan, baiñe, txapela apur bat atzeruzka zeukanien, zumiaz makilla dantza ederra emuten juskuan. Danok eskolara fateko billurrez egoten gitzuan. Hamalau urtekin handik urten gauenien dibujora faten gitzuan Armengokin. Dibujuen gauzela bekak atera jittuan aiuntamentuek eta nik bekie konsegiru naixuan Bergan eskola elementalian maiestria estubixetako. Baiñe, bigarren urtien gerriek urten juan eta akabo.

Gerra ostien Zerrajerara

Berrogeitalauei torgoro hasi nitzuan Zerrajeran. Gero hiruregetaxeixen "jurau de empresa"n elegruta urten naixuan.

Handik hurrengo junta sozialerako elegrute. Junta soziala, fabrika guztietako jurau de empresatoko representaziñue zuan.

Eta Junta Sozialetik "Candidato para concejal por medio sindical" urten naixuan.

Orduan eliziñuek hiru zatituen izetan zittuan; "por cabezas de familia" bik urteten juen kandidato.

Hurrenguek "por medio sindical" Azpiazu eta neu gitzuan.

Alde bakotzak botuek konsegiruten eñ

biher izeten juan alegiñe. Guri, geure enpresiek, Zerrajerak baitza emun juskuan baiñe gero kontra botau. Neuk urten naixuan bakarrik Azpiazuk etxuan urten.

Gero herriko gremiuen kandidaturie; bi elegritu bie juen, guk Fertxu eta Garro sartu gittuan listan eta botaziñue adien atara juen.

Aiuntamentuko komisiñuek

Hasi gaixok aiuntamentuen, eñ jittuek komisiñuek eta "delegau de bonberos" eta "comisión de festejos" jarri nindduan.

Jaixetako progamiekin "información y turismo"ra fan biher izeten zuan. Orduen Fraga jauan eta ordena serixuek jeozon. Han baietza emunezkeroko gobierno zibillera harek pe baimena emuteko.

Behin banoiek Sto Tomasetako programiaz eta bentanillan: "Aquí falta una cosa, no me trae usted la traducción de lo que van a cantar los bertsolaris". Barre eiñda esan nutzan: "pero como le voy a traer, no sabe que cantan por improvisación". "pues no se autoriza"–

Azkenien kasuik eñ barik ekarri gittuan bertsolariexek.

Hamar bonbero boluntarixoko

Hamar bonbero boluntarixoko jeozan eta konsegiru naixuan sue suertetan bazuan dieta eta fabrikan galdutako orduak aiuntamentuek pagetie. Orduen ure botateko mangakin ibiltten gitzuan barregarri eta urtien presupuestue kalkulata 200-300 metro manga barrixe ipintten naixuan. Konzejaltzatik urten nauenien kilometro bat inguru mangera itxi naixuan barri-barrixa.

Aparte sua atxingiteteo eskobak, estintoriak, eta kategorixako motobonba alemana plazoka erositta. Iñok sinestu be etxuan eitten aiuntamenturako plazoka konsegiruko nauenik.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Pazkuazkuak ziela ta konfesonarixoko aurrian jente pilla ederra zeuan zain. Gizon bati tokau jakon txandia eta abadiak preguntau zotsan:


- Ze ofizio daukazu?
- Titiriterua
- Ze da hori?
- Ba...komeriantea
- Eta hortik bizi zara?
- Bai jauna
- Eta komerixa horrek zela egi-tten dittuzu ba?
- Hara...

Aittiaren egin orduko eskuen gafiñan jarri zan hankak goixan zittuala.

Hori ikusitta han zeren andra guztiak ihesari emon zotsen.

Laster urten eban abadiak konfesonarixotik diarka:

- Eh, nora zoiazte?
- Penitentzia hori betetzeko prakak jaztera



Etxaok ondo norberak esatia, baiña enok kazari makala izan nere denporan. Sasoi baten kazariak ia ni pasatzen ikusi nidduen preguntatzen juen basarritan, ni pasau banintzan alperrik zala ta jarraitzia; izan be txepetxik pe enajuan lagatzen. Behin, goiz guztia kasan ein ondo-ren banajatok etxera. Kartutxo bat bakarrik gelditza jatan eta zer ikusiko ta erbixa arbolapian eta usua arbola gafiñan. Laster bota najittuan harek pe.

- Zela?
- Tiro korriduakin

Juan Martin Elexpuru

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE



KILL-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



Martinez argazkia

"La Asunción" ikastetxea 1948

A suntzionistak 1931n etorri ziren Mondragoera eta Arrasate pa-sealekuan eraiki zuten ikastetxea. Bertan oinarrizko batxilergoa, irakasletza, pianoa, pintura, etab. irakasten ziren. 1948ko otsailaren 20an, Maria Jesus Bartolome orden fundatzailearen urtebetetzea ospatzeko antzerkia antzestu zuten argazkiko ikasleek. Batzuk monjaz jantzita, besteak neskamez edo andrez, pozik ageri

dira, eskuartean panpina eduki edo ez.

Argazkia ikastetxeko patioan atera zuen Martinez argazkilariak, atzekaldean Udalara bideko malda eta Maitena baserria agertzen direla.

Goiko iladan ezkerretik eskuinera, Ana Maria Bartolome, Ana Mari Azkarate, Milagros Rodriguez, Pilar Uribe, Isabel Mendizabal, Maria Rosario Bengoa, Loli Gaztañaga, Xeli Mendizabal eta Pilar Artzamen-

Bigarren iladan ezkerretik, Teresita monja, Jesusi Arana, Kontxita Uribe, Esther Nazabal, Isabel Merino, Rosario Mondragon, Mercedes Palacios, Jaione Mendizabal, Marisol Marin, Arantxa Zeziaga eta Mari Paula Kruzelegi.

Belauniko Mari Asun Berezibar, Elena Etxebeste, hilda, Mari Loren Alberdi, Carmen Moro, Miren Gaztañares eta zutik panpinaz, Fuensanta Gaztañaga.

**PUB
HAIZEA**



ENARA
OSAGIRPIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



Ezkontz agentzia

Hemen dituzu AMODIO S.A. agentziako bezero batzuren argazkia eta beraiek adierazitako zenbait datu. Batzuaq eta besteak kontuan hartuz, pareka itzazu nor bere bihotzeko azukre koxkorra izango denarekin.

ANDER

"Beltxarana behar dut nik bizitzako laguna, ene amatxoren antzera"



UNAI

"Sentsiblea nahi dut emaztea, etxekoia, garbia, bakailoa ondo prestatzen dakiena ..."



IÑAKI

"Bizitzaren poesia irakurri nahi nuke neure maiteñoaren bisaian"



JON

"Betaurrekodun emakumeak ez ditut batere gogoko"



ARRATE

"Dotore jantzitako gizonak gustokoenak nik. Itxura traketskoei ez diet aukerarik emango"




ESTIBALIZ

"Martxa behar dut nik, martxa! Gorbatahunak eta antzekoak, fuera! Gora bizio eta rock and rolla!"



ANE

"Neri gehienbat hilean kilo erditik gora altxatzen dutenak gustatzen ..."



AINHOA

"Erretzaile amorratua naizenez, derrigorrez tabakozalea beharko nuke senarra"



ENBIDotik hartua, ELKAR-en baimenarekin



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzesiño kalea 4, behea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Zenbait olerki

Askotan amestuz
zure beroa,
ohe hotza
gorputz biluzi;
maindire garbiak
gure haitzulo,
begien dizdira
argi bakartzat.

Zure zoroak
nau zorutzen,
zure barreak
nau pozten,
zure tristurak
naigabetzen,
eta zuk?
Zuk zure atal bihurtzen nauzu.

Bihotzean, ustekabez eta tamalez,
orratz bat sartua zait,
hain sakon sartua zeren
ezin bait dut ikusi;
baina ez ikusi arren,
somatuz gain min egiten dit,
min bizia,
eta ez dakit zer egin.
Maitasuna ote?

Nire lotsa
zure gorria,
zu nire
hari-bizia,
artaldeko ardia,
kortako zaldia,
zu dena, izadia,
bihotz mingarria,
une nazkagarria,
larria, izardia,
nork daki zergatia?

Jon Lekunberri

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate

■ **Non zegoen ETB?** Larunbatean Donibane Lohitzunen Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketaren finala jokatu zen, Euskal Herriko probintzia guztietako ume eta ikastolen parte hartzeaz. Denetara 2.000 bat umek hartu du parte Txapelketa honetan, kontuan hartuta probintziaz-probintzia jokatu diren kanporaketak.

Euskal Herri osorako ekitaldia eta Euskal Telebista ez zegoen. Komunikabide bakarrak Baionako Gure Irratia, Iruñeko Euskal Herria Irratia, Laudioko Telebista egin nahi dutenak, Deiaiko korreponsaria eta Arrasate Telebista eta Arrasate Press.

Antolatzaileak haserre zeuden ETBrekin, Txapelketa honekin erakutsi duen sentiberatasun faltaz. Hasieran gu ETBkotzat jo gintuzten eta izan genituen gorabehera batzuk gure egoera argitu arte.

Kasu honetan Euskal Telebistakoek bista handiagoa erakutsi zezaketen, zeren Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketan Bilbo Handiko inork parte ez hartu arren, albiste zen. Horrelakoetarako izaten dira korreponsariak. Guk dakigunez, ETBk badu berea Iparraldean.

■ **Fagor taldearen prentsaurrea.** Aurten lehenengo aldiz gonbidatu gaitu Fagor taldeak bere 1989ko ekitaldiaren berri emateko antolatu zuen prentsaurrekora.

Informazio mailako ia guztiak ziren han, estatu mailakoak esan nahi dut, baita hemengoak ere, kanpokoren bat edo besteren (The Financial Times kasu) presentziarekin.

Bideo ikusgarria eskaini ziguten hasieran, gero prentsaurrea pasatzeko. Honek luze jo zuen. Heldu ginenetik irten arte bi ordu pasatu ziren. Gehiegi prentsaurreko soila izateko, Fagor izan arren. Lan Kide Aurrezkiak, nire ustez, ez hain ikusgarriak agian, baina hobeto antolatzen ditu.

Gauza bat aipatzekotan, etxeko eletratresnekin eratu duen erakustokia. Benetan ikusgarria. Merezki du ikusteak.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Zirkulu gorria:** Ostiralean, gaueko 9etan, Jean Pierre Melvillek zuzendutako filmea.

Corey presondegitik ateratzen da, eta Parisera abiatu. Bertan Rico traidorea aurkitu nahi du, mendekua hartzeko.


Antzezleak Alain Delon, Gian Maria Volonte eta Desire Lozano.

■ **Talk talk:** ETBk igande gaue-tarako programatzen dituen kontzertuei dagokienez, honako honetan Talk talk taldearen txanda izango dugu, modernitate eta berrikuntzaz josia datorren taldea.

■ **American hot wax:** Floyd Mutruxek zuzendutako pelikula, asteazkenean, gaueko 9.10etan. Antzesleak Tim McIntire, Loraine Newman, Jay Lena.

Fred, rockaren erregea, ospe handia hasi da jasotzen. Lagunak, konposatzaileak, rock taldeak...guztiak bere atzetik dabil-tza. Gobemukoek, ordca, bere irratia programa debekatu nahi dute.

bideoak



Niniveh-ko jauregi galduak

Hamaika sekretu izkutatzen ditu basamortuko areak. Honako honetan, Jonah-rena kontatzen zaigu, nola jo zuen ekialderantz, Assyriako Niniveh hiri handira. Han prediku egin zion jendeari. Damutu egin behar zirela jaunari min emanagatik...

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)


Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Imanol Zubizarreta Ezkoriazako Telesko telebistako zuzendaria da. Asteazkenean ATBren estudioetan izan genuen bisitan. Imanol urtebeteko eszedentzian dago Lan Kide Aurrezkian, denbora horretan Teleskon buru belarri lan egiteko. Irailean Teleskok bost urte beteko ditu. Guretzat ohorea izan zen Euskal Herriko herri telebisten aintzindariaren bisitaldia.



asteko

PROGRAMAZIOA

4 ASTELEHENA
20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.20 **Mondrasport** Jon Anduezak zuzendua
Berriak (errepikapena)


5 ASTEARTEA
12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)

6 ASTEAZKENA
20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**. Mahaingurua. Aurkezlea Jose Mari Velez de Mendizabal.
Gaia: Elbarrituak
Berriak (errepikapena)

7 OSTEGUNA
12.00 **Berriak**
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)

8 OSTIRALA
20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.20 **Erretratoa**. J.R. Elortzak aurkeztua. Gonbidatua: Joxe Urbesalgo enpresagizona
20.55 **Musikantoi**. Mikel, Asier, Patxi eta Peppek aurkeztua. Musika munduan egunean egon nahi duzenon-tzat ezinbestekoa.
Berriak (errepikapena)

9 LARUNBATA
12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.25 **Erretratoa** (bezperakoa)
12.55 **Musikantoi** (bezperakoa)



Orain hilabete edo, Almeneko 4.mailako laurogei neska-mutikoren bisita izan genuen. Egun hauetan sobre handi batean beste horrenbeste orri jaso ditugu, bertso, gutun, marrazki eta bestelako oparirekin. **Maidar Landak** marrazki eder hau egin zigun. Ezin amaitu guk ere maite zaituzteguna esan barik.

Gezurra badirudi ere, urduri samar etorri zitzaigun **Fray Rufino Erretratoa** programaren grabazioara. Zorionez, elkarrizketak aurrera egin ahala, ez zela horrenbesterako konturatu zen eta gutxi falta izan zitzaion "hauxe da dena?" esateko.



ETXEPARE - BILINTX
LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak


Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA





ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Jendea zeureganatzeko balio izango dizun aparteko grazia eta enkantua izango duzu aste honetan; alperrikako gastuak izateko arriskuan ere bazaude, argi ibili.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Aspalditik buruan dituzun helburuak gauzatu badoaz ere, zure bamea ez da alegaratu oraindik, nekea bizkarrean daroiazulako da hori. Maitasunean atsedentxo hartzea komenigarri litzateke.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Aholkulari arituko zara; beharra daukanak joko du bere garaian zuregana, bitartean utzizuz pakean. Fundamenturik gabeko harremanek eta elkarrizketa hotzek eragozpenak sor ditzakete.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Ahalegin handirik egin barik etorriko zaizu zorte ona; diru aldetik ez duzu buruhauste handirik izango, baina baruko arrenkurak estropuz egitera bidera zaitzake.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Eziozu aurkarik egin inori, ez lanean ezta etxean ere, puntuak irabazi beharrean zaude eta. Estresatuta zabilta eta atsedean pixka batek ez duzu kalterik egingo.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Ez zara oso indartsu egongo fisikoki, erraz nekatuko zara horregatik. Lehiak ez dituzu gogoko eta bakean utz zaitzaten baino ez duzu nahiko.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Intuizioa eta zorte ona garatzeko bidean zaude, ez zaitetz bakarria izan eta jar itzazu praktikan ideia horiek. Arrakasta besteen laguntzari esker lortuko duzu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ez zaude batere lasai azaltzen duzun jarrerarekin, elkarrizketaren bidez konpon daiteke hori. Zuhurra izatea komeni zaizu maitasunean.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Bikain arituko zara lanean, honek ez du esan nahi oztopo guztiak gaitituak izango dituzunik, agertu ahala gaititu egingo dituzula baizik. Kontuz amodio kontuetan.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Parrandarako prest egongo zara edozein momentutan eta aurki behar beharrezkoak izango dituzun energiak alperrik gastatu dituzu, ingurugiroa rutina bilakatuko zaizulako.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Edozein egoeratan izanda ere, burutik pasatzen zaizun guztia azaltzen saiatu zaitetz gaizkiulerturik suerta ez dadin. Perfekzioa lortu arte saia zaitetz lanean.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Alperrik galduko dituzu energiak, gelditze-ko unea iristean, ez bait dakizu dagoeneko nahikoa da esaten; honekin zure helburuak atzeratzea baino ez duzu lortuko.


METAL-ARROZTEGLA P.V.C. eta ALUMINIOAN



Espezialitatea:
zubi termikoren haustura

Urasandi Auzoa z/g Tfnoa: 74 36 34 ELGOIBAR

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA


Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ



San Andres auzoa

Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina

Opel Kadett



**ONA BAINO
HOBEA**

Autogintza esperientzia handia duena bakarrik has daiteke 1988an gehien saldu zen autoa hobetu nahian. Horixe egin du OPELek, eta hona emaitza: OPEL KADETT berria.

Zatoz ikustera Opel kontzesionari Ofizialetara.

Zain daukazu.

BERRIA

Zain gauzkazu



TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71

Kontzesionari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperietziagatik